

Trena eta autobus zerbitzuak hobetzeari buruzko mozioa

Administrazio publikoek zuzenean edo beste enpresa baten bidez ematen duten garraio zerbitzuak bat etorri beharko luke erabiltzaileen premiekin.

Elgoibarri dagokionez, argi dago garraio publikoaren zerbitzuak asko hobetu beharra duela Elgoibar-Bilbo tren zerbitzuak ordu erdiko maiztasuna du 16:30ak arte, gero orduro). Donostia eta Elgoibar artekoa ordea, ordubetea behin igarotzen da bi norazkoetan.

Ermua-Elgoibar zerbitzua Ermua-Deba bihurtuko balitz eta bere maiztasuna areagotuko balu, hobekuntza garrantzitsua izango litzateke, are gehiago trena eta eskualdeko autobusen ordutegiak bat etortzea saihestuko balitz.

Hori hobetu nahirik, Elgoibarko EH Bilduk mozio bat aurkeztu du urriaren 31ko udalaren osoko bilkurarako, administrazio publiko desberdinei zuzendutako hainbat eskaerarekin:

- 1- Euskotrenek Elgoibar-Bilbo ordu erdiro eskaintzen duen bezalaxe, Elgoibar-Donostia ere ordu erdiro eskaintzea, horrek Deba-Ermua tranbia funtzioa egingo luke eta Elgoibartik kostaldera eta Donostiara joateko aukerak ugarituko.
- 2- Elgoibartik Bilbora eta Gasteizera joateko autobus zerbitzu berriak ezartzea
- 3- Autobusen eta trenen ordutegiak egokitzea, bi zerbitzuetan berdinak izan ez daitezen.
- 4- Eusko Trenbideak Altolako tren geltokia kentzeko fasean dabilelarik, Elgoibarko herritarren partaidetzari buruzko araudian zehaztutako "Auzo batzar" edo "Herri partaidetzako prozesu, mekanismo edo organo puntual bat" martxan jartzea, altzolarren garraio beharrak konponbidean jartzeko.